



**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
(UPV/EHU)  
RED DE ESCUCHA Y RESPUESTA  
Entzute eta Erantzute Sarea**

### ***I. Zer da Entzute eta Erantzute Sarea?***

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ikastegien Entzute eta Erantzute Sarea **unibertsitateko ikasleen, irakasleen eta ikastegien arteko lankidetzaren egitura informala da**, gure ikasle zaurgarrienak detektatu eta horiei erantzuna emateko.

Ikasleen eta Enplegagarritasunaren Errektoreordetzak bultzatutako proiektu parte hartzailea da Sarea.

### ***II. Helburuak***

Sareak unibertsitateko **baliabideak jartzen ditu ikasleen eskura, zailtasun psikologiko, ekonomiko edo sozialak dituztenean lagundu ahal izateko.**

Sareak, halaber, elkartasuna eta enpatia bezalako balioak sustatzen ditu unibertsitateko kideen artean, eta ikaslearen prestakuntza integralean eragiten du, ingurunearekiko konpromisoaren bidez.

### ***III. Nork parte har dezake Entzute eta Erantzute Sarean?***

#### **1. UPV/EHUko ikastegiak**

Hori egiteko interesa duten UPV/EHUko ikastegi guztiek parte har dezakete Entzute eta Erantzute Sarean. Horretarako, Sareko erreferentziazko pertsona bat izendatu beharko dute, bere ikastegian haren jarraipena egiteaz eta Ikasleen eta Enplegagarritasunaren Errektoreordetzarekin hitz egiteaz arduratuko dena.

Sarean **parte hartu nahi duten ikastegiak** Ikasleen eta Enplegagarritasunaren Errektoreordetzarekin **harremanetan jar daitezke, Ikasleen Zuzendaritzaren bitartez.**

#### **2. UPV/EHUko ikasle eta irakasleak**

Entzute eta Erantzute Sarea **lankidetzan aritu nahi duten UPV/EHUko ikasle eta irakasle guztiei irekitako proiektua** da. Ikasle eta irakasle laguntzaileak sareko baliabideetara sartu nahi duten pertsonen kontsultak jasotzeaz arduratuko dira, bai eta ikasle zaurgarrien beharrak hautemateaz ere.

Sarean parte hartu nahi duten ikasleek eta irakasleek **beren ikastegiko ikasleen dekanordearengana edo zuzendariordearengana jo beharko dute.**



### 3. Prestakuntza saioak

Sareak **berariazko prestakuntza saioak eskaintzen dizkie parte hartzen duten ikasleei edo irakasleei**. Era berean, jarduteko jarraibideak proposatuko dira, eta Unibertsitateak ikasle zaurgarriei laguntzeko eskaintzen dituen zerbitzu eta programei buruzko informazioa emango da.